

AHOZKO PROBLEMAK 2

Buruketak ondo egiteko marrazkiak egin ditzakezu edo zenbaki zuzena erabili.

1.-3 zapi badituzu eta 2 galtzen badituzu.

Zenbat gelditzen zaizkizu?

2- Lorenak 2 puxtarri ditu eta Rikardok 1.

Zenbat puxtarri dituzate bien artean?

3- Neska bik sagar erdi banak dituzte.

Zenbat sagar dituzten bien artean?

4- Martinek eta Juliak bakoitzak gaileta bana ematen didate.

Zenbat gaileta ematen dizkidate bien artean?

5- Nik 2 borragoma ditut eta nire ahizpak 3.

Zenbat borragomak ditugu bion artean?

6- Zenbat kotxe dira 3 kotxe eta beste kotxe bat?

7- Edurnek 2 anai-arreba ditu eta Pilarrek 4.

Zenbat anai-arreba gehiago ditu Pilarrek Edurnek baino?

8- Zenbat da 4 libururen erdia?

9- Koldok 4 errotulki ditu eta bere amak beste bat ematen dio.

Zenbat errotulki ditu orain?

10- Dianak 3 ipuin oparitu dizkio lagun bati. Eta

beste bat bere nebari.

Zenbat ipuin oparitu ditu guztira?

11- Atzo arratsaldean 5 irudi egin genituen, eta gaur

2 egin ditugu.

Zenbat irudi ditugu orain?

12- Egunero, ikastolara noanean, itsulapikoan 3

txanpon sartzen ditut.

Zenbat txanpon aurreztuko dut 2 egunetan?